

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA PIO XII.aren PLAZAKO NASAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aspaldidanik eskatzen ari gatzaizkio gobernu honi, ekimen desberdinen bidez, jarduerak egin ditzan Pio XII.aren plazako nasetan. Izan ere, autobus geltoki berria zabaldu zenetik, inguru hori erabilerarik gabe gelditu da, eta irudi ez oso erakargarria ematen du merkataritza sustatzeko premia duen inguru batean.

Urtebete igaro da ia autobus geltoki berria ireki zenetik eta inguruak irtenbiderik eman gabe jarraitzen du. Horrez gain, hainbat konpainiek autobusak aparkatzen jarraitzen dute, eta bizilagunei eragozpenak eragiten dizkiete zarataren ondorioz. Gure taldeak interpelazioa egitean, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen hala zela, eremua aldi baterako gordeta zegoela autobusak han aparkatzen jarraitzeko. Eremu horri etorkizunean zer erabilera eman aztertzen ari zirela ere jakinarazi zigun.

Urtebete igaro ondoren, iruditzen zaigu badela garaia egoera zuzentzeko eta mahaigainean proiektu zehatzak jartzeko.

Horiek horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal gobernuari eskatzen dio aurkez dezala proiektu bat autobus geltokia zenaren eremuaren eraldaketari heltzeko.

Izpta.: Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea